


ezagutzen al duzu Donostia?

Galtzagorriyene

Loiolan dago Plazaburu kalea eta haxe da hain zuzen ere auzo honetan dagoen kale «zahar» bakarra, Loiolako aitona-amonon oroitzapenetan behintzat.

Gaur ere joandako garaietako aztarna bat gelditzen zaigu ozta-ozta zutik auzo-etxe erraldoien artean kokaturik: *Galtzagorriyene* baserri zaharra. Etxe honen benetako izena *Plazaburu* da (horregatik jarri zaio kale honi daraman izena). Paper zaharretan *Goyari-zaene* ere deitzen zaio baina gure Loiolako zaharrek beti *Galtzagorri* izen-goiti politarekin deitu izan dute, agian etxe honetako nagusia galtza gorriekin ibiltzen zelako.

Gaur bakarrik, hutsa eta utzia dago etxe zahar hau, baina garai batean gaur kale den honetan sei baserri zeuden segidan lerrokaturik: *Kapaztegi*, *Trikibarreue*, *Disparetene*, *Kaxkareue*, *Karkulene*, *Txotene* eta denen «buru» kalearen beste aldetik zazpigarrena: *Plazaburu* edo *Galtzagorriyene*. Pentsa



Galtzagorriyene edo Plazaburu, Loiolan gelditzen den baserri zahar bakarretakoa. Argazkia: Josu tellabide.

kale honetan egongo zen aktibitatea: ez zen bertan jenderik eta abererik falta-ko ez! Pentsa gainera kale honetan bazirela tabernak ere; festak -«billerak»- egiten zirela igandero eta jendetza handia inguratzen zela bertara, ospe

handikoak baitziren Loiolako «billerak»!. Lekuko dira kale honetan neskak fandangoa dantzatzen ikusten direnko argazki zaharrak, gure *Galtzagorri* baserria atzean dutelarik. Argazki haiek oroitzapenean utzita, guk gaur

behintzat dugumari, oraindik gure artean dagoenari helduko diogu: ea etxe zahar hau maitatzen dugun. Ea lehengo Loiolaren oroitzak bakarretakoa salbatzen dugun.

JOSU TELLABIDE



Diseinua • Altzariak • Konplementuak

Prim, 6 • Tfnoa.: 43 01 95 • Donostia

ZER GALAN AHOLKULARITZA

• Auditoriak • Zerga eta Ekonomi Aholkularitza Kontularitzen Antolaketa • Aholkularitza laborala

Gran Via 9, 4. Esk • Tfnoa.: 28 67 11 • DONOSTIA